

auzoz auzo • auzoz auzo • auzoz auzo •

**herrera-bidebieta**

# Bizikleta zaletasun nabaria


**m**endi-Zaleak Elkartek antolatatu zuen Mountain-Bike irteeran 350 lagun bildu ziren. Arrakastatsua izan zen benetan, gure auzoan kirol ekintza batean parte hartzeko hainbeste jende elkartzen den lehenbiziko aldia baita.

Guztien artean, bi zauritutako baino ez ziren izan, bati ukalondoan bost puntu eman zizkioten eta besteak dislokazio bat izan zuen.

Baina aste osoan zehar egindako euriek eragina izan zuten ibilbideko zoluan eta horrek arrisku bizian jarri zituen parte-hartzaileak. Adibidez «*lokatz aldapa*» izeneko inguruan nahikoa estutasunpasa zituen batek baino gehiagok.

**Denbora luzeko prestaketa**

Maiatzetik hona ibili dira lanean buru belarri



laranjak, 72 litro Coca-Cola eta 17 gozoki kaxa behar izan ziren. Produktu bakoitza bere lekuan jartzeko, 55 lagunek lan egin zuten eta DYA zein irrati afizionatuen 3 talderen laguntza izan zuten.

**Irabazleak**

Irabazleak honako hauek izan ziren: lehen saria Santi Iturbe, bigarrena Mikel Market. Kadete mailan Unai Lasarte Cortajarenak irabazi zuen. Herrerako lehenbizikoa Jose Manuel Carballo izan genuen eta azkena Arantxa Artola. Emakumezkoetan lehena Ainhoa Larrea izan zen eta bigarrena Lierni Diaz.

Materiale ugari banatu zuen Mendi-Zaleak Elkartek, besteak beste, uretakoak, 3 maillot, 3 eskularru, culotte bat, 2 kasku, 8 motxila eta 100.000 pezetako bizikleta bat.

Mendi-Zaleak Elkartez arduratzen diren gazteak. Honelako gauza bat pres-tatzeko behar diren diru laguntzak bilatu egin behar dira eta ondoren

gauzak poliki-poliki pres-tatu behar.

II. Mountain-Bike lehiaketa honetarako 400 ogitarteko, 400 pertonen-tzako ura, sagarrak,

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

**INTXAUSTI DIETETIKA**

jaki osasuntsu eta naturalak



Jose Elozeji, 120 Tfnoa.: 39 89 84

*Valares*

Altzariak•Dekorazioa  
Liburudenda•Opariak

Larratxo Pasealekua, 14 behea  
Tfnoa.: 39 14 11

**jaupe**

LUIS MARI JAUREGUI

liburudenda/Paperdenda

Larratxo Pasealekua,  
39/Tfnoa.: 39 37 78

## Auzoan bertan duzu aukera!!



Euskadi Etorbidea, 5 - Pral. C  
20110 PASAJA - TRINTXERPE  
Zumardi Ibilokia, 14  
(Bidebieta - 1)  
20016 DONOSTIA  
Telefona: 399877

**i M A N O L**

HARATEGIA URDAITEGIA  
GURE BASERRIETAKO HARAGIA

BERTSOLARI TXIRRITA, 14 • TFNOA: 39 29 40  
ALTZA DONOSTIA



**EDERKI - Tapiztegia**

Etxe-eder  
Herrera pasealekua, 20 Tfnoa.: 40 07 62

**intxaurrondo**

# Santu Guztien Parrokia diru beharrez


**Dani Vidal,** auzoko preso politikoa urriaren 23an askatu zuten zazpi urte espetxean igaro ondoren. Pasa den larunbatean omenaldi beroa eskaini zitzaion frontoian. Txalapartariak, bertsolariak, dantzariak eta gainontzeko presoek senideek hartu zuten parte besteak beste.

**Zarategi pasealekuan** kokatuta dagoen Gurutze Gorriaren inguruan auzoko jendea kexatu egin da sirena hotsak direla eta. Jendeak dio, larraldiko egoera ez izan arren, sirena hotsa jartzen dutela anbulantziek eta abiadura handiz ibiltzen direla.

**Larrotxene** Kultur Etxeko liburutegiak aukera berri bat eskaintzen du. Liburuak ezezik, zenbait bideo etxera eramateko aukera izango da. Oraingoz, marrazki bizidunetako filmeak eta dokumentalak dira eskainitakoak.

**Intxaurrondoko** Kirol Elkartek bere helbidea aldatu du. Zubiurre pasealekua utzi eta Zarategi Pasealekuko 82. zenbakian jarri dute bere egoitza berria.

**S**antu Guztien eguna pasa berria den honetan, auzoko parrokia batek diru eskaera garrantzitsua egin dio auzoari. Santu Guztien Parrokiak diru arazo garrantzitsuak ditu momentu honetan. Eliza auzoaren zabalkundearekin batera eraiki zuten eta dagoeneko zazpi urte bete ditu ezkontza, hileta edo bataioak ospatzen. Parrokiaren beharrak 70 milioitakoak dira eta kreditu hau 15 urtetan ordaintzekoa da. Parrokiakoek zenbait kontu korrante jarri dituzte



auzotarren eta beste hainbat instituzioen esku. Deialdi edo eskaera honekin, epe laburrean erantzuna jasotzea espero dute.


## «European Sua»ren maketa



**E**uripean Sua taldekoak jo eta ke ari dira azken aldian. Datozen asteetarako kontzertu mordoxka daukate: hilaren 5ean Leitza, 11n Amara Zaharreko Haritza Elkartean eta hilaren 19an Arrano Beltza Elkartean. Gainera, bere lehen maketa grabatu dute. Sei kantuz osatuta dago, erritmo gogor nahiz bigunagoak tartekatuz. Kantuak beraiek egindakoak dira eta maketa hau kaleratzea aurrerapausu handia da taldearentzat. Auzoko tabernetan eta Donostiako ohizko tokietan salgai duzue maketa.

NAGORE IRASTORZA (TFNOA.: 285749)

ARGAZKIA: IMANOL OTEGI



**ULI ALDE**  
**Euskaltegia**

-ikas ezazu euskara Grosen  
-HABEK homologatua

Jose Maria Soroa, 10 • Tfnoa.: 28 13 69

**AMEZTI**

ARGIGINTZA ETA MOTA GUZTIETAKO LANPARAK

Jose Arana, 14 • Tfn oa.: 278385 - Fax: 2908786